

Lituania: hizkuntza eta gizartea

Jordi Bañeres

Letoniera eta lituaniera dira gaur egun indoeuropear familia haundiaren barruko talde baltikotik bizirik dirauten hizkuntza bakarrak. Aintzinan, hizkuntza baltikoen eremua oso lur zabalera hedatzen zen. Ekialdean, ikerketa toponimikoek Moskuko lurralderaino iristen zela erakutsi dute; mendebaldean berriz, XVIII. mendean ekialdeko Prusiaraino zabaltzen zen. Eslabo eta alemanen artean hertsiturik, hizkuntza baltikodun herriek iparralderantz eraman zituzten herri baltofinikoak (uraliar familiakoak alegia), horrela gertatu zen estonierarekin, letonierak eta Finlandiako Golkoak setiatu zutena, eta ordutik dugu eraturik oraingo mapa linguistikoa.

Gaur egun, lituanieraren eremua nahikoa homogenoa da, Vilnius inguruan ezik, poloniera eta Bielorrusieraz ere hitzegiten bait da han. Gerren arteko garaian, Lituaniako gaurko hiriburuan, %10ak baino gutxiagok hitzegiten zuen lituaniera, hizkuntza nagusia "eslaviera" zen bitartean;

«Gerren arteko garaian, Lituaniako gaurko hiriburuan, %10ak baino gutxiagok hitzegiten zuen lituaniera, hizkuntza nagusia "eslaviera" zen bitartean»

«Lituaniera eta lehengo SESBeko hizkuntza eslaviarren arteko harremana, eta bereziki errusierarekin duena ulertzeko oinarritzko faktore bat alfabetoaren desberdintasuna da»

«Hiru miloi hiztunek baino gehiagok erabiltzen du lituaniera: 2,6 miloik Lituanian bertan, 50.000k Bielorrusian, Letonian eta inguruko errepubliketan, eta beste 100.000k SESBeko eremu guztian zehar»

komunitate polako eta bielorrusoaren arteko desberdintasun erizpidea ez zen hizkuntzazkoa, erlijiozkoa baizik: katolikoek poloniera beretzen zuten, ortodoxoak Bielorrusieraz jabetzen ziren artean. Azken honen status linguistikoa konplexua da eta ez dagokigu hemen aztertzea. Nahikoa izango da aipatzearekin Ukraina, Errusia eta Poloniako hainbat sektore linguistikok Bielorrusiera fikziotzat jotzen dutela, eta bakoitzak bere hizkuntzaren parte bezala hartu ere, hartzen dutela. Dena den, Vilniusen argitaratu zuen Taraskevichek Bielorrusieraren lehen gramatika 1918an.

Lituaniera hartzen da indoeuropar hizkuntza guztietatik arkaizanteena bezala. Egun duen lexikoak antza gehiago dauka jatorrizko indoeuroparrarekin, grekera homerikoak edo sanskrito klasikoak zutena baino. Indoeuropearren estudioan Franz Bopp izan zen aitzindarietako bat eta honek, ez kasualitatez, *Vergleichende Grammatik des Sanskrit, Zend, Griechischen, Lateinischen, Litthauischen, Gothischen und deutschen* egin zuen (1832-52). Esan ere esaten da, nekazari lituaniarrek testu vedikoen zati osoak zuzenean ulertzeko gai zirela. A. Meilletek gomendatu du, indoeuropear arrunta gogoraraziko duen zerbait aditu nahi duenak, lituanierara hurbildu beharra duela. Fonetika arloan, dituen berezitasunek behartu dute latinezko alfabeto standardari diakritikoak gehitzera, bokal luzeen gaineko marra horizontala eta abar, horren adibide ditugu; morfologia arloan, deklinabide malgua izateak eta dualaren erabilpenak ezaugarritzen dute; sintaxi eta estilistika alorrean, kontinenteko beste hizkuntza indoeuropearren pare dago lituaniera.

Lituaniera eta lehengo SESBeko hizkuntza eslaviarren arteko harremana, eta bereziki errusierarekin duena ulertzeko oinarritzko faktore bat *alfabetoaren desberdintasuna* da. Hasierako garai zalantzatsuen ostean, 30eko hamarkadatik aurrera hain zuzen ere, alfabeto zirilikoa erabiltzeari ekin zion SESBeko hizkuntzen gehiengo zabal batek. Gisa horretara, errusierak errazago

eragin zezakeen bere alfabetoa erabiltzen zuten hizkuntzetan. Guzti honetatik kanpo geratu eta alfabeto desberdina erabiltzen zuten hizkuntza bakarrak hauexek izan ziren: armeniera eta georgiera, -euren berezko alfabetoari eutsi ziotenak-, jiddischa -kultur ekoizpen arras erreprimituaz- eta errepublika baltiarretako hizkuntzak, 1940az geroztik SESBera erantsiak.

Hiru miloi hitunek baino gehiagok erabiltzen du lituaniera: 2,6 milioi Lituanian bertan, 50.000k Bielorrusian, Letonian eta inguruko errepubliketan, eta beste 100.000k SESBeko eremu guztian zehar (1970eko zentsoaren arabera). SESBetik landa, jatorri lituaniarra duten 1.300.000 migrarien artean, oraindik ama-hizkuntzari eusten diotenak 500.000 inguru izango dira, eta gehienak EEBBetan, Brasilen, Argentinan eta Australian bizi dira. Bere errepublikatik at, lituanierak demografia murriztuz zihoakiola ikusi du, nahiz eta oraindik aldizkariak eta liburuak argitaratzen diren EEBBetan, Australian eta beste hainbat tokitan. Iparrameriketean, 1940an 272.680 lituanierafono zeuden, 20 urte beranduago ordea, 206.043 baino ez ziren, eta hori %24ko urripena da. Hori horrela izan arren, 1970 eta 1979 bitartean egoera zerbait hobetu zen eta 249.351 hiztun izatera iritsi ziren, %17ko hazkundera alegia. Klaipeda (alemanez Memel) lurraldea salbu, Ekialdeko Prusia germanikoan, 1890ean 125.053 hiztun zentsatu ziren, 1900ean kopuru hori 107.876ra jeitsi zen, hamar urte beranduago 24.811ra, eta 1925ean 5.241 baino ez ziren geratzen.

Geolekto nagusienak lituaniera garaia eta behe-lituaniera (edo samogitikoa) dira. 1887ko zentsoak bereizketa egiten zuen, hizkuntza desberdin bi bailiren, samogitikoa (210.000 hiztunekin) eta lituaniera hertsia artean (448.000ekin). XVI. mendeko lehen testu idatziak samogitikoaz egon arren, pasa den mendetik aurrera egin den literatur-hizkuntzak herriaren ekialdean erabiltzen zen lituaniera garaia hartu du eredutzat.

*«Lituanierak duen
hizkuntz kalitatea
kaltetua izan da
errusierarekin dituen
interferentziengatik»*

*«Urriko Iraultzarekin,
herri hauen hizkuntz
normalizazioa bizkortu
zen euren autogobernua
murriztearen truk»*

«Urriko Iraultzaren eta
Munduko II. Gerrako
hutsartearen artean
errusieraz
konpetenteak ez diren
biztanleen kopuruak
goraka egiten du»

«Stalinekin errusiera
ezartzen du Batasun
osoan, kontu haundiz
egin beharreko gauza.
Prozesuak lehen
emaitzak eman orduko,
Munduko II. Gerrak
errusieratze lana gera
erazten du gerrako
zereginak inguruko
nazionalismoak
onestera behartzen bait
du»

Kodifikazioari dagokionez, aurreneko Lituaniarazko Hizkuntza eta Literaturaren Institutuak buruturiko *Liutuviu kalboszodynas* hiztegi osoa aipatu behar dugu; lehenengo alea 1941ean, alemanen okupaziopean, argitaratu zen arazorik gabe, bigarrena berriz, 1947an estanpatu zena, zirkulaziotik kendu zen Alderdi Komunista Lituaniarreko idazkariak Institutoa kritikatu ondoren; zentsuraturiko berrargitarapenean ezabatu egin ziren Bielorrusiako errepublikako herrien aipuak eta sarrera bakoitzaren amaieran autore guztien siglak agertu arren, herbesteratuenak ere, inon ez zen eskaintzen izen-abizenak osorik ezagutu ahal izateko klabea. Kodifikazio arloarekin segituz, beste lan bikain bat *Lituaniarazko Hizkuntzaren Gramatika Gaurkidea* dugu, hiru aletan eta 60eko hamarkadan zehar argitaratua. Lan honek bidea zabaldu zion, hurrengo hamarkadan Lituaniarazko Hizkuntza eta Literaturaren Institutuak egingo zuen erreforma ortografikoari. Araudi berri hau hain arrazoizkoa zen, ezen migrazio politikoaren prentsa aldetik inongo erresistentziarik agertu gabe onetsi zela.

Lituaniarazko duen *hizkuntz kalitatea* kaltetua izan da errusierarekin dituen interferentziengatik. Hauek horrela sailka daitezke: 1) prosopopeiadun formen kultur maileguak; 2) era praktikoa batez erabiltzen diren kolokialismoak edo klitxe-esaldiak; 3) inoizkakoak, intrusio lexiko idiosinkratikoak, edozein sistematizazio zapuzten dutenak berez. Egun, berba eta esakera ugari zuzenean tartekatzen da errusieraz edo lituani-kalkerez, beste hainbeste jatorrizko berba eta esakera erreperitorio pasiboan fosilizaturik geratu diren artean. Errusieraren tarteketak lexema jatorren bersemantizazioa dakar, horien errusierazko baliokideen eremu semantikoa homologatzerakoan. Hitz eraketa ere bete-betean tartekatzen du errusierak: lituaniarazko berba garbienak errusiar ereduaren arabera lotzen dira laburbilketak eta akronismoak sortuz. *Vietkomas*, *vietinis komitetasen* (udal batzordea) laburpena da, eta internazionalismo ugariaren eredu izan denari jarraituz eratu da, horren kasu,

agitprop, *komintern*, eta abar ditugu. Errusierazko eredu honi %70a eta 80a bitarteko terminologia zientifikoa eta teknikoa atxekitzen zaio. Politiko lituaniar batek esan zuen: “hitz berri baten beharra dagoenean (...), ez dago zergatik asmatu behar, baizik eta errusieratik jaso zuzenezuzenean, errusiera bait da hizkuntza sobietar aberatsena eta SESBeko nazionalitate desberdinen arteko komunikaziorako hizkuntza. Herri sobietarretako hizkuntzek errusierak duen ondasunez baliatzea hiztegia aberasteko, gauzarik naturalena da. Errusiako hizkuntzak eta kulturaren eraginak aberastu eta bilakatu egiten ditu, era progresista batean, beste herrietako hizkuntzak eta kulturak” (*Bolsevik*, 1952, 8).

Beste edozein estatutan bezala, SESBeko politikak bere estatuko mugen barruan bizi diren herrien armonizazioa eta nahastea lortzeko ahalegina egin du. Politika hau ikutu desberdinek bereiztu dute eta *garai taktiko* jarraiak izan ditu.

30eko hamarkada arte, SESBeko hizkuntz politika ez zetorren bat estatu gehienetan ematen zenarekin. Urriko Iraultzak legitimazioarekiko etendura bat suposatu zuen; hori berreskuratzeotan indar nazionalista zentrifugoekin paktatu behar izan zuten sobietek. Bi eginkizunetan gauzatu zen hau. Lehenengo eta behin, herri hauen hizkuntz normalizazioa bizkortu zen euren autogobernua murriztearen truk: Marxen teoriako internazionalismoa edozein modutan erabili zuten eta karikaturizatzeraino iritsi ziren “forman nazionalak, internazionalak (ulertu pansobietikoak) edukian” slogana erabiltzerakoan; Leningandik zentralismo demokratikoa nabarmendu zuten. Bigarrenik, *divide et impera* aforismo klasikoaren arabera, pluralismo nazionalistaren aurrean aniztasuna azpimarratu zuten. Alde batetik, SESBen bazirela 100 hizkuntzatik gora esaten zuten behin eta berriro, eta hori argudiatzeko ez zuten bereizketarik egiten 1.000tik behera hitzun zituzten hizkera eta 40 miloitik gora zituzten hizkuntzen artean. Bestetik, standarden ugalketa bultzatu

«*Kruchoven garaiak
bultzada izugarria
ematen dio
errusieratzeari.
Hezkuntza, migrazioak
eta mass media dira
hori lortzeko tresna
nagusienak*»

«*Brezneven garaian,
bai zentrutik zein
periferiatik, erakunde
desberdinak eratzen
dira errusiera
zuzpertzeko
asmoarekin, beti
PCUSen gidaritzapean*»

«*Kruchoven garaira
arte errepublika
bakoitzeko zientzi
akademiek euren
hizkuntza propioan
argitaratzen bazuten,
Brezneven garai ostean
errusierara pasatuko
dira eta argumenduztat
beharrezkoa dela
esango dute zientzi-
elkartrukea
indartzekotan*»

zuten: honela, komunitate turkidoa, erro islamiar baten inguruan batuta zegoena eta dialekto continuum bat zena, 20 baino standard gehiagotan banatu zen.

30eko hamarkadatik aurrera krisiak jota agertzen da eredu hori. Beste herrialde industrializatuek biztanlegoak hiriburu “nazionalaren” kodigoa onartzea lortu duten bitartean, SESBeko erlojua aurkako norabidean dabil: Urriko Iraultzaren eta Munduko II. Gerrako hutsartearen artean errusieraz konpetenteak ez diren biztanleen kopuruak goraka egiten du. Telefoniak lurralde sobietiko guztiak komunikatzen zituen, baina telefono-hariaren mutur bietan elkarrizketan aritzen zirenen arteko komunikazioa ez zen lortzen. Hogeit urtetan zehar mundu guztiak eramaten zuenaren aurkako politikak, denbora horretan bertan, *40 urtetako amildegia* ireki zuen. Hori burutzeko Stalinek errusiera ezartzen du Batasun osoan, kontu haundiz egin beharreko gauza zuen ordea. Prozesuak lehen emaitzak eman orduko, Munduko II Gerrak errusieratze lana gera erazten du gerrako zereginak inguruko nazionalismoak onestera behartzen bait du.

«*Ekonomia indartzeko
behar nahitanahiezkoak
berarekin dakar
lanaren gizarte
banaketaren aniztasuna,
komunikazio mailan
SESB osoak kodigo
bera erabiltzea
eskatzen duena*»

Kruchoven garaiak bultzada izugarria ematen dio errusieratzeari. Beste edozein hizkuntz ordezkapen garaikidetan gertatu ohi den bezala, hezkuntza, migrazioak eta *mass media* dira hori lortzeko tresna nagusienak. Brezneven garaian, bai zentrutik zein periferiatik, erakunde desberdinak eratzen dira errusiera zuzpertzeko asmoarekin, hori bai, beti PCUSen gidaritzapean. Hauetako erakunderik garrantzitsuena Errusiera Ez-errusoei Irakasteko Ikerketa Institutua da, 1968an sortua eta egoitza Moskun duena. Errusiera ez da gehiago “hizkuntza atzerritar” gisa hartuko, aitzitik “hiritar sobietiko guztien hizkuntza amankomuna” izatera pasatuko da. Kruchoven garaira arte errepublika bakoitzeko zientzi akademiek euren hizkuntza propioan argitaratzen bazuten, Brezneven garai ostean errusierara pasatuko dira eta argumenduztat beharrezkoa dela esango dute zientzi-elkartrukea indartzekotan. Kontua da zientzi-artikulu bat lituanieraz

baldin badago lituaniarrek eta letoniarrek besterik ez dutela irakurriko, errusieraz balego berriz, mundu-hedapena lortuko ez balu ere, sobietarra bai behintzat. Honekin batera, edozein gairi buruzko doktorego tesiak eta ikerketaurre lanak errusieraz idatzirik aurkeztu-beharra ezartzen da. 70eko hamarkadaren erdi-inguru aldera eztabaida juridiko bat zabaltzen da SESB guztian zehar erakunde federatiboei dagozkien konpetentziaz, hizkuntz konpetentziak barne direlarik. Nahiz eta eztabaida horretako irabazle status quoa mantentzearen aldekoak suertatu, horrek ez du geratuko errusieratze prozesua: ekonomia indartzeko behar nahitanahiezkoak berarekin dakar lanaren gizarte banaketaren aniztasuna, komunikazio mailan SESB osoak kodigo bera erabiltzea eskatzen duena. 1986ko PCUSaren programak "eginbehar zehatzetako" atalean, modu doi eta hotz batez ekiten dio hizkuntz ez-errusoan auziari, SESBeko herri guztiek errusiera ikastearen alde, espazio bikoitza eta adore osoz aritzen den artean. Aldiberean, errusieraren hedapenari eskainitako garrantzia ekimen ugaritan gauzatzen da - alderdiaren kongresuak, gobernu ebazpenak, prentsa artikulua, eta abar- bai federazio mailan zein errepublika bakoitzaren mailan.

Sobiet Batasuneko hizkuntz plangintzan, *hizkuntz helburuak* eta *politikoak* bereiztu behar dira, aurrenekoak bigarrenen menpe ageri bait dira. F. Knowlesen diotenaren arabera, lehentasunen zerrenda ondorengo hau litzateke:

Hizkuntz helburuak:

- errusiera bigarren hizkuntza legez ezartzea,
- etnia hizkuntzak alboratzea,
- herrien arteko elkarrekintzarako aukerak zabaltzea,
- gatazka gabeko hizkuntz ekologia indartzea,
- ahal den hizkuntz azpisistema gehien homogeneizatzea, terminologia bereziki,
- hizkuntza modernizatu gabeen bilakaera bizkortzea,
- egintza informatiboaren eraginkortasuna areagotzea,

«Orduko errusierari buruzko diskurtsoak "errusiera-herri hizkuntza" elebitasunak elebitasun eredu berri bat eskaintzen zuela sinistarazi nahi zuen»

«Errusierak, komunikazio-hizkuntza izatea baino gehiago eskaintzen zuen: "herri eta etnia sobietarren nahastatzea", "izpiritu internazionalistaren sendotzea" eta "gizaki berriaren eraketa" errepresentatzen zuen»

-pentsamendu eta adierazpen erak homogeneousatzea.

Helburu politikoak:

- sistema politikoa arazo logistikoez arintzea,
- presio demografikoak galgatzea,
- balore marxista-leninistak areagotzea,
- komunitate etnikoak sare sozialistaren baitan sartzea,
- "abertzaletasun sozialista" zabaltzea,
- SESBen barruan internazionalismoa handitzea,
- sobietar kosmopolitismoa sendotzea,
- sobietarra ez den beste edozein kultur hegemonia zapuztea,
- kaltegarria ez den heinean kultur aniztasuna jasatea,
- superpotentzia gurariak goratzea,
- SESBetik kanpo irudia hobetzea.

«SESBean errusieratze
prozesuari gogor egiten
dioten herriak ez-
eslaboak dira,
historikoki estatu
independiente eta
kultur tradizio
desberdina izan dutenak
hain zuzen ere.
Horrela, euren
hizkuntzari eusteari
dagokionean,
lituaniarrek erakusten
dute indize altuenetako
bat»

Orduko errusierari buruzko *diskurtsoak* "errusiera -herri hizkuntza" elebitasunak *elebitasun eredu berri* bat eskaintzen zuela sinistarazi nahi zuen. Diskurtso horren arabera, "gizarte sozialista aurreratuan" -urbanizatu, industrial, tekno-zientifiko eta nazioartekotu batean-, hizkuntz-etnia prozedurak ezaugarrituko lirateke bigarren hizkuntzan gaitasun haundiagoa izatearekin, zeinak "herri kulturak oztopatu beharrean, euren indaberritze bat suposatuko lukeen". Statusari dagokionean, elebitasun eredu berria Batasuneko hizkuntza guztien eskubide konstituzionaletan oinarrituko litzateke; corpusari dagokionean berriz, ikasten zen errusiera literarioa zela uste zen, ohizko ukipenezko elebitasunarekin kontrastatuko lukeena, azken honetan bigarren hizkuntza ahozko bariatetik abiatuta ikasten bait da.

Hauexek izan ziren errusiera *lingua communis* gisa hartzeko argudiatutako arrazoiak:

- Errusiar biztanlegoaren kopuru handiak eta eremu federalean barrena sakabanaturik egoteak beste herri sobietar guztiekin harremanetan egotea zekarren,

- errusieraren kultur ondasun aberatsa,
- bere baitan dituen beste kultur balore gorenak: Leninen hizkuntza izatea kasu,
- Errusiako herri kulturaren maila bikaina eta duen hedapen funtzional zabala, eta honek egiten duena da bere tresnak, hau da errusierak, aniztasun aberats eta funtzionala hedatzea ere,
- ahoskatzen den idazkera fonetikoak isladatzen duen hizkuntza izatea,
- Hizkuntza mintzatu eta literarioaren artean dagoen alde urria.

“Errusiera, adiskidetasunaren eta SESBeko herrien arteko elkarlaguntzaren hizkuntza” deituriko kongresuan (Taiskent, 1979), L. Breznevек partaideei zuzenduriko mezua hau esanaz amaitu zuen: “sozialismo garatu baten baldintzetan, gure herriko ekonomia osotasun konplexu batetan errotu denean ... komunitate historiko berri bat agertu da, herri sobietikoa”. Errusierak, esparru berri horretan, komunikazio-hizkuntza izatea baino gehiago eskaintzen zuen: “herri eta etnia sobietarren nahastatzea”, “izpiritu internazionalistaren sendotzea” eta “gizaki berriaren eraketa” errepresentatzen zuen.

Federazio eta errepublika mailan egindako plangintzarekin, “multzo etnikoaren” ahultzearekin eta “sobietar kosmopolitismoarekin batera beste mekanismo batzu ere baziren, demografia, ekonomia eta gizarte mailakoak bereziki eta hizkuntzan eragina dutenak. Ekin diezaiozun bada, horiek aztertzeari:

Hizkuntz etnia ikuspegiari dagokionez, Lituania errepublika homogeneoenetako bat zen, alor horretan, Errusiako SESF eta Armeniako SESbaitzeuden Lituaniaren aurretik. Bestalde, bere errepublikan hainbeste lituaniar egotea ere, letoniarrek eta georgiarrek besterik gaintzen ez duten salbuespena da.

Lituaniako SESan, 1959tik 1970 bitartean, urteko

*«1959an euren herrian
errusiera lehen
hizkuntzatzat zuten
lituaniarren kopurua %
0,1a baino ez zen, beste
errepublika
sobietarretan %3,5era
heltzen zen artean»*

*«Lituaniarren
gizabanako-elebitasun
maila Batasuneko
baxuenetariko bat zen»*

TALDE NAZIONAL NAGUSIEN EGOERAK LITUANIAKO S.E.S.an (portzentaiak) 1959-1979			
ERROLDA	1959	1970	1979
LITUANIARRAK			
Lituaniako S.E.S.aren %	79,3	80,1	80,0
S.E.B.S. OSOAREKIKO	1,1	1,1	1,1
Lituaniako % S.E.B.S. osoko Lituaniarreko	92,5	94,1	95,1
ERRUSIARRAK			
Lituaniako S.E.S.aren %	8,5	8,6	8,9
S.E.B.S. OSOAREKIKO	54,6	53,4	52,4
BESTE TALDE NAZIONAL BATZU			
Lituaniako S.E.S.aren %	12,2	11,3	11,1

«Errusiera bigarren
hizkuntzat ezagutzen
dutenen kopuruak
goraka egin du.
1970ean % 36a bazen,
bederatzi urte geroago
% 52ra igo zen»

hazkunde tasa %1,2 da lituaniarrentzat eta 1,3koa errusiarrentzat; 1970-79ko hamarkadarako aldiz, lituaniarrena 0,8ra jeisten da eta besteena 0,9ra. Bigarren independentzia aldian (1918-1940) errusiarrak biztanlegoaren %2,5era doi-doi iristen zirenak, 1979an %9ra heltzen dira eta industria eta administrazio sailetan aritzen dira. Poloniarrak azken Munduko gerran %3a ozta-ozta hartzen zutenak, Vilnius eta bere inguruaren anexioa (1940) dela medio, %8ra iristen dira 1970ean.

SESBean errusieratze prozesuari gogor egiten dioten herriak ez-eslaboak dira, historikoki estatu independentea eta kultur tradizio desberdina izan dutenak hain zuzen ere. Horrela, euren hizkuntzari eusteari dagokionean, lituaniarrek erakusten dute indize altuenetako bat.

Lituaniar nazioak lehen hizkuntzat berea erabiltzean, aldamenean dituzten Bielorrusiarrekin alderatuz gero, oso maila altua erakusten du, bai hiriguneetan zein baserri girokoetan. 1959ko zentsuan esaterako, euren herrian errusiera lehen hizkuntzat zuten lituaniar kopurua %0,1a baino ez zen, beste errepublika sobietarretara migratu zutenen artean %3,5era heltzen zen artean. Vilnius lurralde mixto bat dugu etnikoki eta han ere euren hizkuntza errusiera ez zen beste kodigo batzurengatik aldatu zutenen kopurua %2,1ekoa zen. 1970 eta 1979ko zentsuek isladatzen zuten SESB osoko lituaniarren %2,1ek baino ez zutela errusiera lehen hizkuntzat. Oso indize baxua adierazten du honek, demografia handiko nazio minorizatuetatik, georgiarrek baino gainditzen ez dutena.

GAITASUNA H1ean

1970	BEREZKO HIZKUNTZA	LITUANIERA	ERRUSIERA	BESTE BATZU	GUZTIRA
LITUANIARRAK	2494406		4553	7792	2506751
ERRUSIARRAK	262049	5291		649	267989
BESTE BATZU	285889	11470	50889	5248	353496
GUZTIRA	3042344	16761	55442	13689	3128236

GAITASUNA H2ean

1970	BEREZKO HIZKUNTZA	LITUANIERA	ERRUSIERA	BESTE BATZU	GUZTIRA
LITUANIARRAK	4400		873050	12802	890252
ERRUSIARRAK	3957	82447		4056	90490
BESTE BATZU	7346	46218	181266	3912	238742
GUZTIRA	15703	128695	1054316	20770	1219484

GAITASUNA H1ean

1979	BEREZKO HIZKUNTZA	LITUANIERA	ERRUSIERA	BESTE BATZU	GUZTIRA
LITUANIARRAK	2703452		5745	3036	2712233
ERRUSIARRAK	296400	6641		452	303493
BESTE BATZU	285467	14019	70567	5711	375764
GUZTIRA	3285319	20660	76312	9199	3391490

GAITASUNA H2ean

1979	BEREZKO HIZKUNTZA	LITUANIERA	ERRUSIERA	BESTE BATZU	GUZTIRA
LITUANIARRAK	3622		1415582	8012	1427306
ERRUSIARRAK	5294	106954		4113	116361
BESTE BATZU	8365	49597	208331	2992	269285
GUZTIRA	17281	156551	1623913	15207	1812952

HAZKUNTZA TASAK 1970-1979

LITUANIARRAK	ERRUSIARRAK	BESTE BATZU	GUZTIRA
0,8942%	1,3686%	-0,0164%	0,8537%
	2,5251%	2,2298%	2,3238%
2,5838%		3,6324%	3,5499%
-10,4729%	-4,0195%	0,9394%	-4,4166%
0,8754%	1,3824%	0,6788%	0,8978%
-2,1620%	3,2343%	1,4433%	1,0640%
	2,8875%	0,7840%	2,1771%
5,3700%		1,5463%	4,7994%
-5,0832%	0,1551%	-2,9790	-3,4639
5,2449%	2,7940%	1,3376%	4,4059%

HIZKUNTZA NAZIONALAK H1 BEZALA DUEN ERABILERA S.E.B.S.eko
TALDE NAZIONALETAN

ERROLDA	1959	1970	1979
GEORGIARRAK	98,6	98,7	98,3
UZBEKIARRAK	98,4	98,6	98,5
TURKIARRAK	98,9	98,9	98,7
LITUANIARRAK	97,8	97,9	97,9

Lituaniarren gizabanako-*elebitasun* maila Batasuneko baxuenetariko bat zen. Dena den 9 tipo desberdin bereiz daitezke, eta kodigo bikote desberdinak erabiltzen dituen eleaniztasuna ez da bitxia. Gurasoen artean polonieraz, amak semeei lituanieraz eta alabei errusieraz eta anaien artean lituanieraz mintzatzen diren sendiak ez dira gutxi.

Elebitasun maila desberdinak bereiztu behar dira. Saillkapen batek horrela bereizten ditu: 1) elebitasunaurreko

ELEBITASUN INDIBIDUALAK GARRANTZIAREN ARABERA

ELEBITASUN MOTAK

- 1.LITUANIERA-ERRUSIERA
- 2.LITUANIERA-LETONIERA
- 3.LITUANIERA-POLONIERA
- 4.LITUANIERA-BIELORRUSIERA
- 5.LITUANIERA- ALEMANIERA
- HISTORIKOA
- 6.LITUANIERA-HEBRAIERA
- 7.LITUANIERA-KARATIERA
- 8.LITUANIERA-UKRANIERA
- 9.LITUANIERA-IJITERA

HISTORIKOA
 elebakartasuna; 2) elebitasun osagabea; 3) elebitasun osatua; 4) elebitasunondokoa. (Lehen mailak, ondo edo gaizki, lehen edo bigarren heziketan errusiera ikasten duten ikasleak, eta baita ere, oso egoera berezietan ezezagunekin errusiera erabiltzen duten helduak hartzen ditu). Elebitasunaren lehen bi mailek Lituaniako egoera orokorra definitzen dute, azpimarratu behar den arren errusiera bigarren hizkuntzatzat ezagutzen dutenen kopuruak goraka egin duela. 1970ean %36a bazen, bederatzi urte geroago %52ra igo zen. Dena dela, kopuru hauek baxu geratzen dira mundu sobietar osoko ez-errusiarrek bigarren hizkuntzatzat errusieraz duten ezaguerarekin alderatzen baditugu: 1970ean %49a eta

ERAGILE NAGUSIAK

- INMIGRAZIO INDUSTRIALA
 ELKARREKIKO MUGA ETA
 ANTZEKO HIZKUNTZA
 GUTXIENGO HISTORIKOA
 GUTXIENGO HISTORIKOA ETA
 ELKARREKIKO MUGA
 G U T X I E N G O
- GUTXIENGO HISTORIKOA
 GUTXIENGO HISTORIKOA
 INMIGRAZIO INDUSTRIALA
 G U T X I E N G O

«Lituaniera migratzen zutenen artean nolabaiteko asimilazioa somatzen zen, oso gauza harrigarria benetan Sobiet Batasunean»


61a bederatzi urte geroago.

Hiru baltiar errepubliketatik Lituaniak dauka indize baxuena hirigintza arloan, baina bere Errepublikako hirietan lituaniarren portzentaia, Letonia eta Estoniako hirietan ematen den letoniar eta estoniarren portzentaia baino handiagoa da. 1959an, lituaniarren %33a hirietan bizi zen; 1970ean %50a gainditua zuten eta bederatzi urte beranduago %60a.

Lituaniarren heren bat ez da inoiz irten bere herritik atzerrira (1985). Gazteen erreklutamendua Errepublikatik kanpo egiten zen sarri, eta honek errusieraren eremu aktiboari mesede egiten zion, aldi batetarako sakabanatze geografikoa eragiten bait zuen: diskurtso ofizialaren arabera, "inhibizioak" uxatu eta "anaiartekotasun sobietarra"ren sentimendua barnertatzeko aukera ona zen.

Lituaniara migratzen zutenen artean nolabaiteko asimilazioa somatzen zen, oso gauza harrigarria benetan Sobiet Batasunean. Bigarren hizkuntza bat ezagutzen

ERRUSIERAREN EZAGUTZA BIZTANLEGO TALDEETAN



ELEBITASUNAREN MAIZTASUN ALDERATUA, LITUANIARRAREN ADIN
TALDEEN ARABERA S.E.B.S. OSOAN

ADINAK	10	11-19	20-29	30-39	40-49	50-59	>60
ELEBITASUNA%tan	4,2	39,8	72,2	58,4	43,1	28,2	23,6

LITUANIARRAK ETA ERRUSIARRAK HIRIETAN ETA LANDAN

LITUANIAKO S.E.S.

	1959		1970	
	ERREPUBLIKA OSOAREKIKO	H I R I E N GUZTIZKOAREKIKO	ERREPUBLIKA OSOAREKIKO	H I R I E N GUZTIZKOAREKIKO
LITUANIARRAK	79%	61%	80%	73%
ERRUSIARRAK	9%	17%	9%	14%

zuten errusiarren batezbesteko sobietarra %3,5ekoa zen artean (1979), Lituania %36ekoa zen, hau da, hamar bider handiagoa. Kopuru honek esangura handiagoa du kontutan hartzen badugu eskolan ez zela nahitanahiezkoa lituaniera ikastea eta urriak zirela lituaniera ikasi nahi zuten errusieradunentzat zeuden testuliburuak eta manualak.

Errepublikako *Administrazioan*, lituaniera zen ohizko hizkuntza, baina errusierak lekua kendu zion urteak aurrera egin ahala. Errusierak monopolizatu egiten zituen beste errepublikekin eta erakunde federalekin zeuden harremanak, eta aldiberean, udal *Administrazioan*, auzitegietan eta zerbitzu publikoetan apurka-apurka sartuz joan zen .

Hezkuntza sistemak beste edozein faktorek baino eragin handiagoa zuen SESBeko hizkuntz aldaketan. Lituania ez bada neurri berean gertatzen mundu

«Bigarren hizkuntza bat ezagutzen zuten errusiarren batezbesteko sobietarra %3,5ekoa zen artean, Lituania %36ekoa zen, hau da, hamar bider handiagoa»

sobietarraren parte izatera nahikoa berandu sartu zelako da (1945). Arazo nazional eta politikoengatik nahasirik zegoen gerra osteko giro hartan, gai guztiak herriko hizkuntzan emateko erabakia hartu zen; errusiera bigarren heziketako nahitanahiezko gaitzat geratu zen. Kruchoven heziketa erreformak (1958), itxuraz kaltegabea zen apartadu batetan, gurasoei ematen zien eskola-hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

*«Kruchoven heziketa
erreformak, itxuraz
kaltegabea zen
apartadu batetan,
gurasoei ematen zien
eskola-hizkuntza
aukeratzeko eskubidea.
Orduetik perestroikara
arte, guraso
lituaniarren sektore
batek errusiera
aukeratu izan du»*

Orduetik perestroikara arte, guraso lituaniarren sektore batek errusiera aukeratu izan du. Arrazoiak anitzak dira. Hasteko, bazen sistema ideologikoaren presio lauso baina erabatekoa. Bigarren, errusierak gizarte eragintzan, eskolakoan bereziki, aukera hobeak eskaintzen zituen. Hirugarren, guraso batzuren zat heziketa sistemak lantzen zituen baloreek *etxekoekin zerikusirik ez zutenez*, nahiago zuten balore arrotz horiek beraiena ez zen hizkuntza batetan hartzea. Ez da harritzekoa beraz, eskola guztia errusiera hutsez hartzen zuten ikasleen kopurua ama-hizkuntza errusiera zuten ikasleena baino handiagoa izatea. Kruchoven erreformaren hurrengo ikasturtean bertan, irakaskuntza monoglotikoa errusieraz, eskolarizatuen %11ra iristen zen eta ama-hizkuntza errusiera zutenen haurren kopurua %8,5a baino ez zen.

Brezneven agintaritzapean, SESB guztian eskola ez errusiarretako *errusiera* bi frontetan zabaldu zen: ikasketa *tresnatzat*, herri hizkuntzak, gero eta gela eta eskola gehiagotan baztertu zituen, eta *ikasgaitzat* sartu zen gero eta oinarrizkoagoak ziren maila kurrikularretan. Halere, nazionalitate desberdinek erritmo eta pauta desberdinak urratu zituzten. Alde batetik, *oinarrizko heziketan* errusiera ezarri zuten azken errepublikak Estonia eta Lituania ditugu (1980-81 ikasturtea); bestalde, lituaniarrak izan ziren errusieraren ikasketa, eskola-kurrikulumean integratzen gehien atzeratu zutena: eskolaratze lehenbiziko urtetik irakasten bazen normalean, Lituanian urte t'erdi beranduago hasten zen. Azkenik, baltiar hiru errepublikak ziren errusierari klase ordu gutxien eskaintzen

ziotenak: asteko 7 edo 8 ordu, Errusiako RSFSko hizkuntza gutxituez aritzen ziren eskoletan 26 ordu ematen zituzten artean.

Eredu sobietarra hautsiz, Lituania bertako hizkuntzan aritzen diren eskolen hazkunde indizeak errusieraz aritzen direnena gainditzen dute: 1965tik 1972ra bitartean, lituaniera erabiltzen zutenak %14ean hazi ziren, errusiera erabiltzen zutenak aldiz, %10a baino ez zuten aurreratu. Lituaniarazko eskola elebakarretako ikasleei dagokienez, 1953-54 ikasturtetik 1965-66kora bitartean, %83a izatetik 82a izatera jeisten dira, baina azken kurtso horretatik 1975-76kora bitartean %85a izatera heltzen dira. Hiru ikasturte hauetan ere, errusieraz irakasten zuten eskoletako ikasle portzentaiak honako hauek izan ziren: 10, 13 eta 12koa. Etengabeko murrizketa jasaten dutenak berriz, polonieraz irakasten duten zentruak dira: %7, 5 eta 3arekin hain zuzen ere.

«Oinarrizko heziketan errusiera ezarri zuten azken errepublikak Estonia eta Lituania ditugu (1980-81 ikasturtea)»

80ko hamarkada erdi aldera lituanierazko oinarrizko heziketan, "errusiar hizkuntza eta literatura" gaiak zuen helburua ikasle munduan errusiar izpiritua zabaldu eta

IKASTETXEA HIZKUNTZEN ARABERA (1985)

	kopurua	(=%)
LITUANIERA	1854	90
ERRUSIERA	102	5
POLONIERA	49	2
LITUANIERA-POLONIERA	31	2
ERRUSIERA-POLONIERA	30	1

"kultura sozialista amankomun batetan bategite mailakatu bat"i eragitea zen; errusiar literaturak, "iraunkorrak diren balore ideologiko-estetikoak ditu edozein nazionalitateko gazte orok barneratu beharrekoak". Lituania, beste errepublika baltikoetan bezala, herri hizkuntzan irakasten zuten eskoletan, osterantzeko errepubliketan baino ikasturte bat gehiago irauten zuten ikasketek: aitzakiatzat erabiltzen zen arrazoiatariko bat, errusieraren ezaguera errazten zuela zen. Heziketa ertainean hizkuntza hau

*«Baltiar hiru
errepublikak ziren
errusiarari klase ordu
gutxien eskaintzen
ziotenak: asteko 7 edo 8
ordu»*

*«Eredu sobietarra
hautsiz, Lituanian
bertako hizkuntzan
aritzen diren eskolen
hazkunde indizeak
errusieraz aritzen
direnena gainditzen
dute»*

aukerakoa izan arren, %74ak ikasten zuen (1981-82ko datuak ditugu hauek) unibertsitatean baliagarria gertatzen bait zen ezarritako bibliografia eskuratu ahal izateko.

PCUSen 1986ko programan esaten zen “bizitzak erakusten du errusiera hizkuntza nazionalarekin batera atseginez ikasten dela. Alde positibo bat agertzen du, herrien arteko esperientzia desberdinak elkarrekin laguntzen duelako eta baita ere, SESBeko herri guztien eta munduko kulturaren egiten diren egiteta nazio eta nazionalitate bakoitza parte hartzen has dadin”. Errusiera irakasteko bitarteko guztiak jartzen ziren: pedagogoen eta orokorki gaian jakitunak zirenek “kultur interferentzien” ikuspegi desberdinak aztertzen zituzten, belaunaldi gazteak errusiar eredu kulturaletara hurbilduko zituzten baliabideak diseinatzeko ondoren. Errusierarako Baliamentu Zentroek, ederki hornitzen zirenak, bazituzten aurrekontuak “errusierazko olinpiadak”, jaialdiak eta edozein motatako ekitaldi extraeskolarrak antolatzen. Bitarteko hauen zenbaterako kontraste handia zuen errusierazko eskolek herriko hizkuntza irakasteko zituzten baliabide urriekin alderatuz gero. Ingurunea ere, ez zen egokiena: lituaniera gai aukerakoan matrikulatutako ikasleak gelan ikasten ziharduten artean, gai hori ez zuten beste ikasleak jolasean aritzen ziren kanpoan.

Kultura eta komunikabide alorretan ere, lituanieraren erabilpena nagusitzen zen. Lituaniako telebistak, bere emankizunekin 1957an hasi zena, herriko hizkuntza erabiltzen zuen nagusiki. 1985 aldera kodigo bera erabiliko da antzerki emanaldi gehienetarako: profesional mailako 11 antzerki talde profesional dago, afizionatu mailakoak dozena bi inguru dira, abesbatzak 2.000tik gora eta dantza talde ugari dago. Lituaniako zinemagintzaren batezbesteko maila kontutan hartzekoa da: Cannes, Locarno eta beste zinema jaialditan izan bait dira sarituak zenbait pelikula.

Sobiet Batasun osoa irakurle amorratuz eta liburutegizalez josita zegoen, liburu baten argitarapena han, kultura

eta heziketa arloko garrantzi haundiko gertaera bihurtzen zen. 80ko hamarkadan zehar, 2.000 inguru liburu desberdin argitaratzen ziren urtero, horietatik 1.300 lituanieraz ziren, ohizko tirada gutxi-gora-behera 8.000 aletakoa zen, eta guzti honek esan nahi du 16 bat miloi ale argitaratzen zirela urteko. Honek adierazten du ere, liburu/biztanleko kopurua gerra arteko garaian ematen zena baino bost bider handiagoa zela; bilakaera hain zuzen ere, izugarri bizkortu zen: 1940an 3 miloi ale inprimatu ziren; 20 urte geroago 11 miloi baino gehiagora igo zen. 1940-70 arteko urteetan jatorrizko lanen argitarapena bikoiztu egin zen. Lituaniara ez da, hizkuntza gutxituekin gertatu ohi den bezala, tematika urri batetara mugatu, oso esparru anitzetan funtzionatu izan bait du, nahiz eta gaia oso berezitua denean errusiera ezinbestekoa bihurtzen den. Errepublikan era guztiko 2.200 liburutegi dago zabalik 35 miloi libururekin. Aldizkariei dagokienez, 1985 aldera 122k dute guztira 1,8 miloiko zabalpena.

Zeregin kulturala, SESBeko herrialde gutxitu orotan gertatzen den bezala, nortasun nazionalaren adierazpen faktore bat da: horrexegatik hainbeste talde folkloriko eta "kultur ihardunaldiak" hainbatero antolatzea. Iharduera hau hein handi batetan, dantza, abesbatza eta herri artisautzaren erakuste hutsean geratzen da. 60ko hamarkada inguruan Kruchoven agindupean, Lituaniak eta SESB osoak nolabaiteko askatasun kulturala ezagutu zuen. Hamarkada horren amaieran 6 aldizkako agerkari zeuden hizkuntz gaiei buruzkoak, eta hizkuntzalarien nomina inoiz baino zabalagoa zen. Garai horretatik aurrera, hiru errepublika baltikoetan sendotu egin zen Batasuneko besteetan baino handiagoa zen askatasun giroa.

80ko hamarkadan zehar eta egoerak uzten zuen heinean, eztabaida guneak eratuz joan ziren. Kultur gaietatik, emeki-emeki, arazo ekologikoetara igaro zen, Gorbachoven garaian azkenik, arazo politikoei buruz besterik ez iharduteko. Nolanahi ere, egoera honi ez zitzaizkion akatsak falta. Internazionalismoaren izenean

*«Errusierarako
Baliamendu Zentroek
bazituzten aurrekontuak
edozein motatako
ekitaldi extraeskolarrak
antolatzeke. Bitarteko
hauen zenbatekoak
kontraste handia zuen
errusierazko eskolek
herriko hizkuntza
irakasteko zituzten
baliabide urriekin
alderatuz gero»*

*«80ko hamarkadan
zehar, 2.000 inguru
liburu desberdin
argitaratzen ziren
urtero, horietatik 1.300
lituanieraz ziren, ohizko
tirada gutxi-gora-
behera 8.000 aletakoa
zen»*

«Lituaniera ez da,
hizkuntza gutxituekin
gertatu ohi den bezala,
tematika urri batetara
mugatu, oso esparru
anitzetan funtzionatu
izan bait du»

adibidez, "sobietar kulturei" arreta handiago jartzera behartu zen -funtsean, kultura errusiarra gehigarri bitxiren batez hornitua. *Literatura ir Menas* lituaniar aldizkariak 1971ean, orrien %26a eskaintzen zion beste errepubliketako sormen-lanari; lau urte geroago %37a eskaintzen zion. 1941etik 1970a bitartean, beste hizkuntzetako autoreen 1.825 liburu itzuli ziren: 1.543 (%85a) errusiarak ziren. Honen erantzunez kultura bertarakotu egin zen: gaiak bertakoak ziren batez ere, forma aldetik ordea, beti hartzen ziren errusiar ereduak.

Azter ditzagun amaitzeko, *pertsonen arteko harremanak*. Pereistroika aurretik lituaniera, biztanlegoaren gehienak eta erakunde garrantzitsuek erabiltzen zuten hizkuntza zen (euren agerkeriek sarri errusiera erabili arren). Errusiera inmigranteen arteko komunikazio-hizkuntza izatera mugatzen zen -famiako hizkuntza errusiera izan edo ez izan arren- eta inmigrante eta bertakoen artekoa ere bai. *Ezkontza mixtoak* komunitate etniko eta linguistikoen arteko harremanen exponente argienetarikoa bat dira. Lituaniar eta poloniarren arteko ezkontzak emateko ez zen erlijiozko oztoporik izaten, biak katolikoak bait ziren, hala eta guztiz ere, ez ziren oso sarri gertatzen nazionalitate bien artean etsaitasun nabarmena zegoelako.

«Perestroika aurretik
lituaniera,
biztanlegoaren
gehienak eta erakunde
garrantzitsuek
erabiltzen zuten
hizkuntza zen»

Gerra arteko garaian, hiru errepublika baltikoetan ez zuten ondo ikusten errusiarrekin (ortodoxoekin) ezkontzea, eta are gutxiago judutarrekin. 1932 eta 1936 bitartean, nekazal giroetan, lituaniarrek ez-lituaniarrekin ezkontzen zirenen kopurua ez zen %1 era iristen, hiri giroetan berriz, ez zen %3ra heltzen. Garai berean, errusiarrek, biztanlego osoaren %2,5era iristen ez zirenak, nekazal giroetan %49a lituaniarrekin ezkontzen zen eta hirietan %14ak egiten zuen gauza bera. Sobietar aroan, inmigrazio masiboari eta modernizazioaren eraginez ere, (sekularizazioari esker bereziki) exogamiak goraka egin du. 1959ko zentsoan, ezkontza mixtoak %5,9a dira; 1970ean, %9,6a; 1979an, %11,3a. Ikusi dugunak pentsa erazten du epe luzera goranzkoa dela ezkontza mixtoen

joera, dena den, nazio bereko artekoen ezkontzek, (lituaniarrek, errusiarrek edo poloniarrek), argi eta garbi gainditzen dituzte probabilitate estadistiko guztiak. Bigarren mailako adierazleek (errusiar edo lituaniar eskolara joatea esate baterako) diotenaren arabera, ezkontza mixtoak laguntza dira errusieraren finkatze horretan. Bestelako gauza dira letoniar eta lituaniarren arteko ezkontzak, bai herri batean zein bestean, bikote binazionalen artean, hauek erakusten bait dute indizerik altuena herriko hizkuntzarekiko egokipenean.

Batasuneko beste edonora bezala, Perestroika Lituaniara *nazionalitateen arteko harremanak krisiak jota* zeudenean iritsi zen. Errusieratze prozesuak bazuen nahikoa indar elite lituaniarrek arriskutzat jo zezan, aldeberean ordea, aurre egin ahal izateko bezain ahula ere ikusten zuen. Arazoaren gakoa, errusiar eliteak duen aginte ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalen datza, eta errusiarrek ez diren herriekin aginte hori banatzeko borondate faltan. Baina errusiar txobinismoaren areagotzea ekonomi eta gizarte mailako krisialdi gordinago bati lotuta zetorren. Errusiar nazionalismoaren bandera altxatuz, errusiar hiritarren gehiengoa atzetik joango zitzaiola uste zuen bere eliteak. Gauza zeharo nahasteko, errusiar nazionalismoak, historikoki Administrazio sobietarraren ideologiak, eragina izan zuen errusiar jatorrizko langilegoan: errusiar funtzionari eta langileek ez zuten onartzen ekonomiaren deszentralizazioa, ezta autonomia politikoa eta kulturala ere, eta horren arrazoitzeko gisa "proletalgoaren internazionalismoa" erabiltzen zuten.

Adierazi dugun arlo politikoarekin batera, ez hain agerian baina bai indartsuago, lituaniarren sistema sozial eta kulturalari etengabe ekin zioten izkutuko presio *ekonomikoak* zeuden. Alderdi bakarreko eta planifikaturiko ekonomia duen estatu batetan, beti gerta daiteke giza-errekurtsoak ekonomikoak ez diren beste interesen alde agertzea: hau horrela izan ala ez, hau zen bederen, lituaniarrek edozein erabakiren aurrean egiten zuten

*«Ezkontza mixtoak
laguntza dira
errusieraren finkatzean.
Bestelako gauza dira
letoniar eta lituaniarren
arteko ezkontzak, bai
herri batean zein
bestean, bikote
binazionalen artean
hauek erakusten bait
dute indizerik altuena
herriko hizkuntzarekiko
egokipenean»*

*«Goi-mailako giza-
taldeek, nahiz eta
sobiet-errusiar
bizitzaren standardak
asimilaturik izan,
nazionalismotik
probetxu atera zuten»*

«Elitea, bere seme-alabek errusieraz ikas zezaten arduratzen zen artean, behe mailakoen seme-alabek herri hizkuntzari eutsi ziezaioten alde edo neutraltasun interesatu batez agertzen zen»

irakurketa sistematikoa. Honek, eta honi eslabiarrek erakusten zuten gaitzespena gehitu behar zaio, Lituania independentzia lortzera eramango zuen prozesuan izan zuen eragina. Hiriak, harreman etniko-linguistikoetarako *locus* ezin hobeak, behe-mailako giza taldeen erreazio nazionalista nabarien eszenatoki bihurtu ziren, eta hau horrela gertatu bazen, diskriminazio etniko-linguistiko hau lan-merkatuan ere isladatzen zelako da. Goi-mailako giza-taldeen, nahiz eta sobiet-errusiar bizitzaren standardak asimilaturik izan, nazionalismotik probetxu atera zuten osagarriak diren bi helburu lortzeko. Alde batetik, euren funtzionario korporatibismoaren estaldurarako: sozialki mailaz hobetzekotan, sobietar ereduaren arabera, alderditik, batasunetik (idazle, artista, eta abarrenak) eta akademietatik igaro behar zen. Beste alde batetik, biztanlego guztiak aukeren berdintasuna lortzea, nahi beste atzeratzeko: elitea, bere seme-alabek errusieraz ikas zezaten arduratzen zen artean, behe-mailakoen seme-alabek herri hizkuntzari eutsi ziezaioten alde edo neutraltasun interesatu batez agertzen zen.

«Lituania nazio entitate autokonszientearen. Ikuspegi guztietan landua zuen estatu-nazio bati dagokion heldutasun maila»

Etsipen ekonomikoari eta eslaboen aurkako kutsu arrazistei, euren zuten konfidantza sendoa gehitu behar zaie: ez da bakarrik 1940 arte estatu independentea izan zutenaren kontu garrantzitsua, alfabeto latinoaren erabilera -mendebaldeko gisa konnotatua-, goragoko bizitza maila, eta SESBeko beste inon baino okzidentalizazio gradu altuagoa. Bada gainera, -eta batez ere- bizi asoziatibo sendo eta aktiboa: Lituania nazio entitate autokonszientearen. Ikuspegi guztietan landua zuen estatu-nazio bati dagokion heldutasun maila.

Jordi Bañeres

Kataluniako Generalitateko
Institut de Sociolingüística Catalana

Itzultzailea: Eskarne Mujika Gallastegi